

XXX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

*30 URTE, 10 MUGARRI*

## AZKEN ERABAKIA


Aurten hogeita hamar urte bete ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Urteurrena ospatzea erabaki du Andoaingo Udalak, eta edizio berezia antolatu xede horrekin. Hala, hogeita hamargarren edizio hau baliatu nahi izan du geldialdia egin eta atzera begiratzeko, ez bakarrik Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren hogeita hamar urteko ibilbidean begirada pausatzeko, euskal kazetaritzak izan duen aurrerabidea aztertu eta horri buruz hausnarketa eragiteko baizik. Atzera begiratu are indartsuago aurrera jarraitzeko. "Izan zirelako gara", esaldi hutsa baino askoz gehiago baita. Horixe da, XXX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren eta bere "30 urte, 10 mugarri" leloaren oinarrian dagoen aldarrikapena: "izan zirelako gara".

30. edizio honetan, bada, Andoaingo Udalak oso eginkizun berezia eman dio saria ebazteko izendatu duen epaimahaiari: Rikardo Arregiren beraren garaietaraino (1969an zendu zen andoaindarra) begirada luzatu eta proposatzea zeintzuk izan diren berrogeita hamar urte horietako euskarazko kazetaritzaren bilakabidean aurrerabide nabarmena eragin duten eragile nagusiak, urte horietako giltzarriak alegia, hedabideak izan zein norbanakoak. Udalak aintzakotzat hartu nahi izan du Rikardo Arregiren garaian eta 1970eko hamarkadan euskarazko kazetaritzan abian jarritako eraldatze sakonak zein bilakabide izan duen, ikuspegi kualitatibotik begiratura mugarrizat jo ditzakegun ekimenak sarituz. Zehatzago esanda, edizio honek helburu duena da eragile nagusi guztien artetik hamar mugarri aukeratu eta saritzea, funtsezkoenak izan direnak, ez, beraz, ezinbestez mugarri guztiak.

Epaimahaiak osatu du bere lana, eta azken berrogeita hamar urteetako hamar mugarri ebatzi ditu, jakinik, esan bezala, ez direla izan bakarrak, eta ezta ere euskal kazetaritzaren historian lehenak.

Aurreiritzi askoren artean bada bat hedadura aski zabala duena, honakoa: uste izatea norberaren jarduna edo norbere belaunaldiarena direla garaiko hainbat jarduera eta ekinbide onuragarriren abiarazle. Euskararen edo euskarazkoaren sustapenari dagozkion ekimenak ere, neurri batean edo bestean, ez dira egon ohi aurreiritzi horren eraginetik salbu, ez behintzat beti. Baina iraganetik datorkiguna etengabe eguneratzen asmatzea garrantzitsua den antzera da funtsezkoa, orobat, bizi dugunaren nondik norakoa abiapuntutik bertatik ezagutzea, eta aitortzea.

Euskarazko kazetaritza ez da egunotan sortua. Ezinbestez, atzera begiratu behar da haren sorburua ezagutuko bada, oso atzera, RAKSen aurtengo edizioan hartu dugun behaketa-aldia bera ere baino atzerago, euskarazko kazetaritza ez baitzen orain berrogeita hamar urte jai. Badira hainbat ikerlan eta dibulgazio-argitalpen horren guztiorren berri bikain asko ematen dutenak.



Hemen ez goaz, beraz, euskarazko kazetaritzaren historiaren berri ematera, ez asko eta ez gutxi. "Izan zirelako gara" aldarrikapena agerian uztea beste helbururik ez dute lerrook, eta aldarrikapen hori egiterakoan beharrezkoa dela uste dugu, berrogeita hamar urtetik haratago begiratu eta euskarazko kazetaritzaren abiapuntua gogora ekartzea. Horretarako izen gutxi batzuk baino ez ditugu aipatuko.

### *XIX. mendean, abiapuntua*

XIX. mendearen lehen erdian Joseph Augustin Chahoren eskutik euskarazko komunikazioaren lehen printzek argia ikusi zuten, eta mende horretako 80ko hamarkadan kazetaritzaren lehenengo loraldia gertatu zen Euskal Herrian, kultura, politika eta erlijio aldizkarien eskutik, non euskarak bere lekua egin zuen piskanaka. Iparrameriketako Estatu Batuetan sortu ziren, baina, euskara hutsezko lehenengo astekariak (Californiako *Escualduna Gazeta* -1885-, eta *Eskual Herria* -1893-) eta 1887. urtean sortu zen Ipar Euskal Herrian lehenengo astekari euskalduna, hamaboskari sortu eta laster astekari bihurtua, hain zuzen ere *Escualduna* izenekoa, oraingoz bizirik luzeena izan duen euskarazko kazeta eta gaur egun *Herria* izenburupean oraindik argitaratzen dena. Horiek guztiak oso gogoan izan ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak bere lehenengo edizioetan, aipamen berezien jabe eginez. Nolanahi ere, abiapuntuko kazetaritzaz ari garela, protagonista haien guztien jarduna aitortu nahi dugu beren arteko bat aipatuz: Jean Pierre Goytino. Berau litzateke, Mikel Bujandaren esanetan, "euskarazko kazetaritzaren aurrekari modernoa". 1932an kaleratu zuen Lizardik bere *Biotz-begietan* olerki liburuan euskara "noranahikoa" izatearen aldeko aldarrikapena. Ordurako, ia berrogeita hamar urte lehenago, hasiak ziren Estatu Batuetan, aipatu astekarien eskutik, Lizardiren gogo asebetezen.

### *XX. mendean, jarraipena*

Bi mendeen arteko zubi horretan aldizkari askok ikusi zuten argia, izaera ezberdinetakoak; *R.I.E.V., Revista Euskara, Euskal Erria, Ibaizabal, Euskalzale, Euskal Esnalea...* Ez ditugu orain guztiak aipatuko; euskarak horien baitan gero eta pisu handiagoa zuen baina handia zen oraindik gazteleraz idazteko joera. Zalantzarik gabe, zubi-bide horretan Resurrección María Azkueren ekimenak itzeleko eragina izan zuen, Hego Euskal Herrian euskara hutsez argitaratu ziren lehenengo bi adizkariak, *Euskalzale* (1897) eta *Ibaizabal* (1902), bere eskutik etorri baitziren. Esan behar da, halaber, Ebaristo Buztintza *Kirikiñok*, zeina Azkuek erakarri zuen euskarazko kazetaritzara, euskaraz idatzi zuela *Euzkadi* egunkarian 1913az geroztik, eta berak eginiko kazetaritza erreferentzia bihurtu zela. Guztiarekin ere, XX. mendearen lehenengo hamarkada haietan mugarri nagusitzat jo behar duguna *Argia* astekariaren sorrera da, 1921. urtean, zeinari bidea urte gutxi batzuk lehenago, 1919an, *Zeruko Argia* aldizkariaren sorrerak zabaldu zion, azken hau Damaso Intzaren eskutik. *Argia* astekaria, euskara hutsezko kazetaritza eredu garaikideari ateak zabaldu zizkiona, euskarazko egunkari baten bidean urte luzetan onduriko ametsaren lehen emaitza izan zen eta horri eutsi ahal izan zitzaion Gerra zibilaren hasierak isilarazi zuen arte.

Gerraren bortitzean, *Eguna*, euskarazko lehen egunkaria sortu zen, Eusko Jaurlaritzak Bilbo galdu artean bizirik iraun zuena. Nabarmenezkoa da euskarazko lehen egunkariari hain egoera zailean egunez egun bizirik eutsi zion lantaldea, *Egunak, Euzkadi* egunkariaren enpresa berekoa izan arren, zuzendaritza eta erredakzio talde propioa izan baitzituen. Juan Ajuriaguerra eta Estepan Urkiaga *Lauaxetari* aitortzen zaie sustapen lana egitea, eta lantaldea osatzen zuten kideen artean



nabarmendu behar dira Manuel Ziarsolo zuzendari bilbotarra, Agustin Zubikarai zuzendariorde ondarrutarra, Eusebio Erkiaga lekeitiarra, Jose Maria Arizmendiarieta markinarra eta Alejandro Mendizabal mutrikuarra. Gerraoste luzean, 50eko hamarkadan, aukera izan genuen berriro Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariari eta *Zeruko Argia* leihoa zabaltzeko. *Jakin* aldizkaria ere urte haietan ezagutu genuen, bere lehenengo bizialdian, frantziskotarren eskutik. Rikardo Arregik, euskal kazetaritzaren mundu ia ezinezko horretara iritsi zenean, 1960ko hamarkadaren hasieran, frankismo bete-beteko nahi eta ezin horietatik abiatu behar izan zuen, beste batzuekin batera komunikazio moderno baten bidea irekiz.

Bada, aurten, mugarriak xede dituen XXX. edizio honetan, *Zeruko Argia* sortu zela mendeurrena ospatzeko urte bete eskas falta dugun honetan, gogoan hartu nahi genuke, XX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetako euskarazko kazetaritzaren eragile eta protagonista nagusi izan zen gizon bat, beste askorekin lankidetzan –ezin ahaztu, adibidez, Julene Azpeitia, emakume kazetari lehenengoetarikoa- euskarazko kazetaritzaren bidean urrats handiak eginarazi zizkiguna, seguruenik, ordea, ez behar beste ezaguna eta goratua gaur egun: Gregorio Mujika ormaiztegiarra.

Izan ere, Gregorio Mujika izan genuen, *Argia* astekariaren sortzaileetariko ez ezik, *Argia* astekariaren kazetari nagusia eta bertako “kontzientzia”, Javier Díaz Noci irakasleak azaldu bezala. Gregorio Mujikak urteak eman zituen *Euskal Esnalea* eta *Euskalerrriaren Alde* aldizkarietatik euskal kulturgintza suspertzen, *Euskal Esnalearen* arima izan zen, Elixabete Garmendia bere biografoak azaldu bezala. Baionako *Eskualduna* komunikabidera ere iritsi zen bere eragina. Euskararen “noranahikotasunaren” bila zebilela, egunkariaren egitasmoa zela-eta esanda zuen zer nolako euskara nahi zuen gure argitalpenetan: “¿Ez al dauzkagu, ba, asteroko ta amabosteroko ta illeroko ugari? Bai, noski, baña, egia esateko, kopeta beltza dute guziak, astunegiak dira, apañegiak izketan, lotuegiak ibilkeran... (...) Ume bixi, ibilkoi, argi, alai, itzontzi berritsu bat bear dugu: itzari geiegi begiratu gabe itzegingo duana, ezpañetan far-irria ta begietan argi ugaria duala, toki guztietan sartuko dan umetxo jostalari ta atsegiña: astero-astero munduan zer gertatu dan labur eta alai esango diguna.”

Begirada mende bat atzeraino luzatu dugun honetan bihoakie, bada, aipatu ditugun izen gutxien eskutik, gure begirunea, aitormena eta esker ona, kazetaritza euskaraz egin zedin eta euskaldun guztien begietara irits zedin hainbesteko ahalegin burutsua egin zuten guztiei.

Eta gatozen, berriro ere, azken berrogeita hamar urteetan euskarazko kazetaritzak egindako aurrerabidean funtsezko izan diren hamar mugarri ezagutzeko eginkizunera.

### *Azken berrogeita hamar urte*

Gaur egun euskarazko kazetaritzak heldutasun maila altua du. Kazetaritzaren genero edo azpi-genero guztiak jorratzen dira euskaraz, baina, esate baterako, informazioa-kazetaritzaren muina den informazioaren lanketa, esan nahi da- 1970eko hamarkadaren aurretik oso gutxi lantzen zen euskaraz. Baloraziozko kazetaritza deitu genezakeena zen ordura arte nagusi, eta baserri munduari, erlijioari edota euskarari berari lotutako gorabeherak pisu handia zuten aztergaien artean. Prentsaurrekoak euskaraz egitea guztiz ezezaguna zen urte horietan. Euskarak ez zuen komunikazio-hizkuntzaren estatusa. Luis Alberto Aranbarri *Amatiñok* kontatu duenez, Euskaltzaindiak Juan Carlos



Erregeren dekretuak eman berri zion ofizialtasuna jendaurrean azaltzeko egin zuen prentsaurrekoa, zeina 1976ko otsailean Durangon egin baitzuen, gaztelaniaz egin zuen osorik. Bukaeran, aurkezpena eta hainbat kazetariren galdera eta erantzunak gaztelaniaz entzun ostean, *Amatiño* kazetaria ausartu zen galdetzeraz: “euskaraz galdetzerik ba al dago?”. Bertan ziren euskaltzainek euskaraz erantzun zituzten kazetariaren galderak. Lizardiren “noranahikoa” aldarrikapenak zentzu betea izaten jarraitzen zuen berrogeita bost urte geroago. Pentsa noraino aldatu diren kontuak.

Euskarazko kazetaritzak, bistan denez, bere ongaitz guztiekin gaur egun duen hedaduraren eta duela berrogeita hamar urte edo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren lehen urtean zuenaren artean dagoen aldea ikaragarria da. Gaurko euskal prentsa sendoagoa da, aurrera egin du bikaintasunean, eta inguruko beste hizkuntzetan egiten den kazetaritzarekiko konparagarria da. Gaurkoa, ordea, ez da berez edo ezerezaren gainean sortua. Bide luze eta malkartsua egin du euskarazko kazetaritzak. Bide horretan barrena, Rikardo Arregiz gero mugarri izan diren hamar ekimen identifikatzeko ahalegina da epaimahaiak egin duena. Topikoa badirudi ere, epaimahaikideek aitortu behar dugu ez dela lan erraza izan hamar aukeratzea, asko eta askotarikoak izan baitira berrogeita hamar urteotako protagonistak. Pertsona ugariren ekina dago tartean. Pertsona horietako hainbatek “aipamen berezia” jaso du Rikardo Arregi Sariaren hogeita hamar urteotan, hain zuzen ere beren ibilbide eta aitzindaritzaren aitormen gisa.

Hamar mugarri erabakitzerakoan, oso hasieran erabaki zuen epaimahaiak mugarritzat norbanakoak izendatu beharrean, askotariko erakunde eta hedabideak izendatzea eta saritzea, hain zuzen ere aintzakotzat hartuz euskarazko kazetaritza, norbanakoek egina bai, baina askoren artean eraikitako enpresa kolektiboa dela.

Mugarrien izaera kolektiboa azpimarratzerakoan, ordea, epaimahaiak hedabideen ondoan gogoan izan nahi ditu bereziki 1970eko hamarkadan bultzatutako prozesuan neurri batean edo bestean giltzarri izan ziren bestelako eragileak: komunikabideetako edukien sortzaileak (kazetariak, idazleak, berri-emaileak, askotariko kolaboratzaileak, ilustratzaileak...) eta produkzio langileak (maketageak, inprimatzaileak, banatzaileak, ikusentzuneako teknikariak...), komunikabideetako sustatzaileak, publizitatea txertatzen zuten enpresa iragarleak, irakurleak, harpidedunak eta ikusentzuleak. Aipamen berezia zor diegu horiei guztiei eta, nola ez, militantziaren bulkadaz jardun duten deniei.

Azkenik, epaimahaiak eskerrak ematen dizkie hamar mugarriak aukeratzeko prozesuan beren proposamenak bidali dituzten herritar, profesional, irakasle eta hedabideei. Jakin bezate hartu duten lana ez dela alferrikakoa izan, epaimahaiarentzako lagungarria baizik.

## 10 MUGARRI

### ***ANAITASUNA***

“Lan egin dagigun, gure erriarentzako beste bizitza barri bat ekarten. Lan egin, eta danok alkartuta”, idatzi zuen lehen zuzendariak *Anaitasunaren* lehen zenbakiko azalean. 1953ko ekaina zen: lau orrialde eskas zituen aldizkariak, zuri-beltzean, paper merkean.



Aurrera begira jarrita errun ohi da historia, eta *Anaitasunak* halaxe egin zuen: etorkizuna amets, egunean egunekoan jardun. Hogeita hamar urteko ibilbidean, mila eta berrehun lagunek idatzi zuten bertan. Sei milatik gora artikulu eta lauhundik gora zenbaki dira aldizkariaren uzta.

Euskal prentsa berriaren erreferentea izan da *Anaitasuna*. Sari hau merezi du bi arrazoi nagusirengatik:

- Batetik, *newsmagazine* eredu euskarazko prentsara ekartzeagatik: formatu modernoa, eduki modernoak, kazetaritza modernoa. Elizaren babespetik atera, eztabaida politikoa piztu, eta kale-kazetaritza sustatu zituen 70-80ko urteetan.

- Bestetik, euskara batuari egindako ekarpenagatik. Eztabaida sutsuen artean, hiru urratsetan planteatu zuen euskara batuaren aldeko apustu irmoa: bat, abiapuntu gisa, *bizkaiera batua* sortzea eta sustatzea; bi, *ereduzko euskara batua* apur-apurka sartzeari orrialdeetan; eta hiru, *euskara batu betea* erabiltzea oso-osoan bere produkzioan.

Imanol Berriatua izan zen lehen zuzendaria. Hainbat zuzendari eta erredakzio-buru edo koordinatzaile izan zituen ondoren, ofizialak batzuk eta ez-ofizialak beste batzuk. Denborak eta eztabaidak hala eskatuta, aldizkariaren arduetatik paseak dira: Alfontso Irigoien, Juan Azurmendi, Gotzon Garitaonandia, Joseba Intxausti, Angel Zelaieta, Josu Torre, Xabier Kintana, Joan Mari Torrealdei, Antton Iñurritegi, Xabier Artzelus, Jose Ramon Etxebarria, Tomas Trifol...

1982. urtean, umezurtz hil zen *Anaitasuna*, goseak: zuzendaritza-lerro argirik gabe, finantza-zulo gorri handiarekin... urliak bedeinkatua, sandiak kritikak, eta berendiak isildua.

*Zozpala* elkarteak sortzen ahalegindu zen aldizkariko langile eta kolaboratzaile zenbait, zulo beltzetik ateratzeko *Anaitasuna*. Hura gatzatu ezinean, *Argiaren* proiektua indartzera igaro ziren.

## **Zeruko Argiatik ARGIAra**

“Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu. Euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu. Euskal leihatilatik munduari so egingo dion kazetaritza. Munduko berriez gure herria hezetuko duen kazetaritza. Hau gogoan izanik heldu dio Zeruko Argiak aldaketari. Baina ez gara berriro berrirotik hasten. Lehen ere bazen zerbait Zeruko Argia. Oinarri sendoaren gainean abiatu da aldaketaruntz.”..1976ko urtarrilekoak dira lerro hauek, *Euskal Kazetaritzaren Urtea* errebindikatu zenekoak. Euskal kazetaritza irmoa sortzeko, *magazine* formatura aldatu ziren. Gaietan ere nabarmendu zen aldaketa. Bazuten aurreko urteetako oinarri sendoa: arteaz, filosofiaz, nazioarteko gaiez, kulturaz, ekonomiaz eta abarrez idazten trebatuta zegoen talde oparoa; albiste bila kalera atera ziren lehen kazetariak. Baina 1976tik aurrera, leku handiagoa hartuko dute euskal gizarte hartako kezkek: zentral nuklearrek, sindikalgintzak, kooperatibek, politika giroak, euskararen egoerak, hezkuntzak, eta abar. Nola ez izan gogoan Anparo Arangoaren torturaren lehen lekukotza grafiko hura?



1980an, kaputxinoek aldizkariaren jabetza izateari utzi, *Argia* izena hartu eta ordutik hona etengabeko berrikuntzan jardun du: astekari osoa koloretan inprimatu eta Internetera salto egin, eduki guztiak doan emanaz gainera; propio Interneten jartzeko egindako euskarazko lehen bideoak sortu, bai eta multimedia kanal berezia ere; eta azken urteetan, blogetako eta multimedia kanaleko edukiak eta aldizkariko edukiak *Creative Commons* lizentziapean askatu.

Rikardo Arregiren itzalpean, iraultza eta modernotasuna ekarri du (*Zeruko*) *Argiak*; ideia-laborategi izan da (*Zeruko*) *Argia*, beste hedabideetarako harrobi –*Deia*, *Egin*, *EITB*–. Harrobi baino gehiago ere bai *Euskaldunon Egunkaria* hango taldearen fruitu izan zelako. Inon aurkitzekotan, (*Zeruko*) *Argian* aurkituko dugu euskal kazetaritzaren ADNa.

Horregatik guztiagatik dira mugarri. Baina mugarri hori ezinezkoa izango zen harpide eta irakurleen babesik gabe, publizitatea jarrita zuten denda, enpresa, jatetxe, edo finantza-erakunderik gabe. Horiena ere bada mugarri hau.

## **TTIPI-TTAPA**


Inon bada-eta, tokiko hedabideetan garatu da, 1969tik hona, euskarazko komunikazioa. Irakurle kopuruaren aldetik, hiri, herri, ibar eta eskualde mailako aldizkariak gailentzen dira gaur egun euskal prentsan, konstelazio anitza eta ugaria osaturik maiztasunaz, zabalkundeaz eta sendotasunaz den bezainbatean. Horien gehienen bateragunea den Tokikomen mapari begiratu baizik ez zaio egin behar fenomenoaren norainokoaz ohartzeko.

Jadanik sendoturik ematen duen errealitate horrek bere aitzindaria izan zuen, bistan dena. *Ttapi-Ttapa* aldizkaria Beran sortu zen 1982an, gaur egun indartsuago ageri diren bertze aldizkari batzuk baino hainbat urte lehenago. Sarri zabaldu zen Bortzirietako gainerako lau herrietara. Handik, ezari-ezarian, zainak hedatu zituen Nafarroako mendialdeko bertze ibarretan barna: Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitzaldea... are eta, mugak hautsirik, Sara eta Senpere herri lapurtarretaraino.

Bere bizi luzean goiti-beheitiak izan baditu ere, hamaboskari gisa finkaturik dago gaur egun. Bere gogo berritzailea hasieratik jarri du agerian. 1994an kolorea sartu zuen bere aleetan eta 1996an bere edukiak Interneten bidez hedatzen ere euskarazko lehen tokiko aldizkaria izan zen. *Herria* iparraldeko astekariaren eredutik abiatuta, bere nortasuna garatu du *Ttapi-ttapak*, eta Euskal Herriko zoko guztietan sortu diren bertze aldizkarien bide-erakusle espanturik gabea izan da urte hauetan guztietan.

## **UPV/EHUko GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA**

Euskal kazetari profesionalik gabe ez legoke euskarazko kazetaritza modernorik. Baieztapen horri helduta bigarrena egin daiteke: azken hiru hamarkadatan euskarazko kazetaritzaren esparruari giza baliabideetan ekarpen esanguratsua egin dion erakunderik bada, hori UPV/EHUko Gizarte eta



Komunikazio Zientzien Fakultatea dugu. Leioan ikasitako profesional gaitu eta trebatuak ari dira egun gurean euskarazko paperezkoetan, ikus-entzunezkoetan zein Internet bidezko hedabideetan. Denetan.

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik, Fakultatea ikasketa plan propioekin hasi zen une beretik ekin zitzaion kalitatezko prestakuntza teorikoa eta praktikoa euskaraz ere eskaintzeko ahaleginari.

Txikitasunetik emandako lehen urratsak laster izan zuen emaitza; 1991ko ekainean lizentziatu zen ikasgai guztiak euskaraz burutu zituen lehen belaunaldia. Haiei, ogibidez euskal kazetari izan eta kazetaritzatik bizi nahi duten milaka lagun gehitu zaizkie, ehun bat ikasle batez beste ikasturte bakoitzeko. Urteekin, Deustu eta Mondragon Unibertsitateak ere euskarazko kazetaritza esparruaren harrobia handitzeko zereginera batu ziren.

XXI. mendea adin nagusitasunera iritsi den honetan UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak tinko eusten dio helburuari; globalizazioaren garaiko erronkei eta euskal gizartearen komunikazio beharrei erantzuteko gai diren profesionalak prestatzeko eginkizunari, hain zuzen. Horregatik merezi ditu bai aitortza, baita saria ere.

## **EITB**


Euskarazko kazetaritzaren lehen aztarnen bila mende luze bat atzera egin behar dugu. Lehen hazi horiek gerraurrean hasi ziren loratzen eta gerrak txirtxilatatu zituen. XX mendeko bigarren erdialdean ernatu ziren berriro, irakurle gutxi bezain zintzo batzuen onerako, irrati entzule leial ugariren onerako, euskaraz mintzo ziren kazetari gutxi batzuen eskutik, diktadurak uzten zituen zirrikituetatik.

Aitzindariak aitzindari, lehen uzta oso eta betea 1982an hasi ginen jasotzen, Euskal Irrati Telebistaren sorkuntzaren ondorioz. Mugarri horrek banatzen du bitan euskarazko kazetaritzaren historia.

Euskarazko irrati eta telebistan landu zen kazetaritzaren inguruko hiztegi bete bat, osatu ziren, kiroletan, politikan eta beste hamaika esparrutan, gaur berezkozat ditugun hitz eta esapideak, askotan eguneroko hizketara ere ekarri ditugunak. Bultzagile izan dira eta dira EITBko kazetariak hizkuntzari dagokionez.

Baina Euskal Telebista kazetaritza baino gehiago ere bada. Berari esker sartu ziren gure etxe guztietan, adibidez, bertako eta atzerriko telesailak, marrazki bizidunak, filmak, euskara eremu ezezagunetarako ere baliagarri zela frogatuz. Inolako nekerik gabe, harpidedun izan gabe, euskarazko hedabideek aro berri batera eraman gintuzten. Hori guztia enpresa konplexu eta teknologiko baten bidez eta, gainera, diru publikoan oinarritua, erakunde publikoa baita EITB.

Zalantzarik gabe, EITBrik gabe pobrea gozatu litzateke gure gizartea.



## **ELHUYAR**

Zientzia “hutsek”, punta-puntako teknologiek gaur egun gure gizartean duten eragina eta ikusgarritasuna, guregan sortzen duten zirrara, garai batekoen aldean handiak dira oso, eta zalantza izpirik gabe hori, unibertsitateetan eta hezkuntza erabidean izan duten garapenari zor izateaz gain, azken hamarkadetan hedabide orokorretan eta berariazkoetan izan duten zabalkundeari esker ere izan da.

Euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren esparruan inori zor baldin badiogu zientziak eta teknologia ezagutzera eman eta hutsetik zabaltzen hasi izana, *Elhuyar* aldizkariari da, zeinak, 1974. urtean jaio arren, 1985eko abenduan eman zuen argitara bere zabalkunde garaiko lehenengo zenbakia, zuri-beltzean, euskaldun asko ustekabe gozoan harrapatuz: kotxe hegalaria, Halley kometa, osasun eta medikuntza gaiak, teknologia mekanikoa eta digitala, biologia, jolas matematikoen ezinbesteko atala eta orduantxe apurka-apurka indarra hartzen ari ziren ordenagailuei eskainitako atal didaktikoa izan ziren hasierako proposamen batzuk.

Egitasmoaren atzean *Elhuyar* elkarte, Donostiako Goi-mailako Ingeniaritza Eskolako irakasleek 1972.ean sortua, eta baita beste unibertsitate batzuetako irakasle zerrenda luze bezain bikaina, argitalpenaren iraupena geroan bermatzeko ezinbesteko gertatuko zena.

Urteetan aurrera egin ahala *Elhuyar* aldizkaria komunikazio egitasmo zabala bihurtu da eta paperezko euskarrikoen etorkizun ia ezinezkoan bere lekuari irmo eustearekin batera, bere hazia komunikazio egitasmo berrietara zabaldu du, arrakasta handiz. Horren lekuko, esate baterako, egun ETB-n eskaintzen duten *Teknopolis* saioa.

Zientzia eta teknologia euskaraz landu, ezagutu eta zabaltzearen alor idor hura ongi asko umotu du *Elhuyarrek* urte hauetan guztietan, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren ikuspegian mugarri gisa azaltzeraino.

## **EUSKALDUNON EGUNKARIA**

“Lana eginaz goaz aurrera, kate horretan denok batera gogorki loturik gaude” zioen poetak, eta hala etorri zen, 1990ean, *Euskaldunon Egunkaria*, gerra garaiko *Egunaz* geroko euskarazko egunkari bakarra. 2003an bidegabeki itxi zutena, baina gaur egungo *Berrian* bizirik dirauena.

Funtsezkoa da euskararen biziberritzeari eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubideari Egunkariak, eta gero Berriak, egindako ekarpena, eta erabakigarria, orobat, euskarari prentsa idatzian eta Interneten egindako lekua. Ordurako hainbat ekimenen eskutik euskara noranahikotzeko hasitako bidean mugarri izan zen Egunkaria, askotariko gaiei egunerokoan leku eginez: gizarte, politika, kirola, jolasak, elkarrizketak, erreportajeak, iritziak...





Corpusaren arloan egindako ekarpena nabarmendu nahi dugu. Euskarazko kazetaritzak ezinbestez landu beharrekoa du kazetari hizkera. *Euskaldunon Egunkariak* sorreratik ekin zion hizkuntza eredu egokia lantzeari. *Egunkariaren* estilo liburua, eta gero *Berriarena*, mugarri eta erreferente egokiak izan dira guztientzat geroztik, bai hizkera-estiloari dagokionez, eta bai estiloaren beste arlo batzuei dagokienez ere. Kazetaritza idazkera aberastu du.

*Egunkariak* izan zituen aurrekariak eguneroko prentsa idatzian. 80ko hamarkadari begira jarrita, hiru aipatu beharko, hirurak astean behingo maiztasuna zutenak: *Zabalik* (Felix Ibargutxiren ardurapean egin eta El Diario Vasco egunerokoaren barruan banatzen zena), *Eguna* eta *Hemen, Deia* eta *Egin* egunkariekin batera banatzen zirenak, hurrenez hurren, Luis Alberto Aranbarri - Mikel Atxaga bikotearen ardurapekoa lehena, eta Joxan Agirreren zuzendaritzakoa bigarrena.

*Egunkariaren* sustatzaile eta arduradunen zerrenda luzea da. Horietatik dagoeneko gure artean ez direnak aipatzera mugatuko gara, guztien ekarpenaren aitortza moduan: Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka eta, geroago, Joxan Lizarribar.

## **EUSKAL IRRATIAK**

1980ko hamarkada aitzin, “Xiberoak botzik” ez zuen. “Irulegik” irratarik ez. Erdaldungoak aldiz “bere irrati” zeukan (eta bat baino gehiago!). Txingudi aldean, uhinetan, *Antxetak* ez zuen oraino hegaz egiten.

Halere euskarazko irratsaio zenbait esperientzi izan zen Iparraldean. Maite Barnetxerena 1966tik goiti, *Radio Côte basque* deitu zerbitzu publikoan. 1978z geroztik, *Radio Adour Navarren*, Loiolako Herri Irratiaren laguntzaz, hego aldetik emititzen zuena.

1981ean, Frantzia indarrean zegoen irrati monopolioaren bukaerarekin batera, ordurarte irrati libreak eta piratak deitzen zirenak, legeztatuak izan ziren. Urte berean, *Gure Irratia* sortu zen. 1982an *Irulegiko irrati*a eta geroxago *Xiberoako botza*. Azkena, 2001ean *Antxeta irrati*a. Ordurarte euskarak izan ez zuen tokia eskaini zuten.

1997an, hiru irrati historikoek bat egin zuten, *Antxeta* sarean hartuz, jaio eta berehala.

Bakoitzak bere nortasuna atxiki zuen, bere eskualdearen ispilua izaten jarraikiz eta euskalkiak elkar ulertaraziz. *Euskal Irratiak* deitu taldea osatu zen, indartsuagoa, bakoitza bere xokoan baino. Ezen, pentsa zer izan zen garaian, 13.000 bizilagun baizik ez dauden Xiberoan irrati baten elikatzea (albistez eta programaz) eta ekonomikoki zutik atxikitzea! Aunitz urtez diru laguntza eske etxez etxe ibili ziren alde honetako hiru probintzietako irratiariak. Entzulegoaren elkartasunari esker iraun zuten. Emeki-emeki irratiaren lanaren aitortza heldu zen, udalen zein orduko elkargoen eta estatuaren eskutik. Lauek bat eginez, lan moldeak arrazionalizatu zituzten, programa eta albistegiak aberastu, Iparraldeko estaldura segurtatu, sarea indartu. Entzuleen masa kritikoa lorturik, saihestezina den komunikazio taldea sortu zuten. Uhinez gain, informazio eskaintza aberatsa proposatzen du *Euskal Irratiak* taldeak, bere webgunean. Halakorik egitea asmatu ez zuten



frantsesez emititzen zuten Iparraldeko elkarte irrati gehienak desagertu dira azken urteotan. *Euskal Irratiak* ez, aro berriei beti egokituz joan baitira.

Auzolanari esker 80ko hamarkadako aitzindarien proiektua sendotu zuen *Euskal Irratiak* taldeak, erronka berriei ekiteko gai izanik.

## **EIBAR.ORG**

Ekintzaile ospea daukate eibartarrek, eta, euskarazko komunikazioari dagokionez behinik behin, ondo merezia daukate fama: izan ere, XX. mendearen hondarretan Internetek komunikazio-eskema tradizionalak apurtu eta etengabeko interakzioari eta ahots eta mezuen ugaritasunari bide eman zienean, eibartar lagun-talde bat berehala jabetu zen aldaketa horren garrantziaz eta *eibartarrak* posta-zerrenda sortu zuen 1998an, euskaldunok paradigma berrira egokitze aldera.


Interneten euskarazko edukiak behar zirela eta, Eibarri buruzko atari estatikoa etorri zen ondoren: [www.eibar.org](http://www.eibar.org) atariaz ari gara, Eibarko internauta-elkartearen guneaz, baina berau munduratuta ere ez ziren bertan goxo geratu gure eibarnautak: informazio-bilatzaileek gizarte saretu eratu berrian zeukaten inportantziaz ohartuta, *aurki.com* ere sortu zuten, euskara hutsezko estreinako bilatzailea, Interneteko euskal produkzioaren ispilu izateko bokazioz sortu ere.

Hari horri jarraiki, elkartearen gune estatikoa dantzan jarri zuten hurrena, 2004an euskarazko lehenengo blog komunitatea sortuta. 2016rako 33.500 mezu baino gehiago elkartrukatuak zituzten posta-zerrendan, eta 11.000 testu baino gehiago argitaratuak blog komunitatean, guztiak euskaraz eta denak publiko. Batak zein besteak bizi-bizi jarraitzen dute oraindik, eta horiez gain beste hainbat ekimen ere sustatu dituzte (lau eibarnauta ezagunenak dira, berbarako, GPSrako euskaraz grabaturiko estreinako ahotsak). Ondo merezita daukate, beraz, sari hau, euskarazko komunikazioa aro birtualera egokitu eta bide berriak zabaltzeagatik.

## **GOIENA**

Lorpenaren eta arrakastaren eredu garbia dugu *Goiena*, tokiko kazetaritzan eta komunikazioan aitzindari aparta. Kooperatibismoaren lurraldean, elkarlanaren eta elkar hartu beharraren filosofian aurrera tinko egiten jakin duen egitasmoa. Abiapuntua, *Arrasate Press*, *Berrigara*, *Goibekokale Aretxagazeta*, *Kontuola* eta *Ze barri?* aldizkariak *Goienkaria* izeneko komunikazio ekimenean guztiak bat egin izana eta, gerora, guztizko multimedia egitasmoa osatzea, eskualdeko paperezko euskarriez gain bere baitan bina irrati eta telebista bildu zituena, euskarri telematiko guztiekin batera.

Emaitza ez da izan, baina, bilketa eta batura hutsa. Emaitza kalitate, irismen eta ikusgarritasun handiko multimedia egitura izan da, paperezko euskarri klasikoetan –*Goiena* eta *Puntua* astekariak–, *Goiena* telebistan, *Arrasate Irratian* edo *Goiena* argitalpen eta zerbitzu



digitaletan berealdiko oihartzun eta eragina sortu duena eskualdean eta baita eskualdetik kanpo. *Goienaren* argitalpen eta ekoizkinak tokian tokikoak izateaz gain, asko eta asko kalitate eta ontasunez eskualdeaz gaindi noranahiko eredu dira ere gaur egun.

*Goienak* beste inork ez bezala lortu du:

- Eskualde mailako egitasmo bateratua osatzea, guztiz sinergikoa, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren ikuspegi eta ekimen osoa bere esku hartu duena, tradizionala zein gaugerokoa, bikaintasunez.

- Gizarte eta kultura eragile gehienak bere baitara erakarri ditu, eskualde osoan *Goiena* gertakari sozial bihurtuz eta horri eutsiz gizarte oinarri oso zabaleko enpresa egitura baten bidez.

- Tokiko administrazioak ekimenaren kudeaketara bildu ditu, haiek ere partaide eginez zeharkakotasun handiko kudeaketa batean, eta egitasmo berrien sorgune bihurtu da, maiz eskualdea gaindituz.

Horregatik guztiagatik, *Goiena* euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren oso mugarri sendotzat jotzeaz gain tokiko hedabideen erreferentzia nagusitzat daukagu.

*Andoainen, 2018ko urriaren 26an.*

### *Epaimahaia*

#### *Mahaiburua*

*Ainara Rodríguez Zalakain.*

*Mahaikideak:*

*Miren Azkarate*

*Elixabete Larrinaga*

*Jose Inazio Basterretxea*

*Jon Uhartue*

*Allande Boutin*

*Arantxa Urretabizkaia*

*Aingeru Epaltza*

*Aitor Zuberogaitza*

*Idazkaria*

*Patxi Baztarrika*